

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: **66**
Nork aurkeztu du: **Leioako Udala**
Aurkezpen data: **2022/02/09**

Sugerencia N°: **66**
Presentada por: **Ayuntamiento de Leioa**
Fecha de presentación: **09/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

B.2 Aurretiazko gaiak

B.2 Cuestiones previas

1. Aldez aurretik, planoan antzemandako akats eta omisio batzuen berri eman da (adibidez, "03. Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak" planoan), eta adierazi da datu-base topografikoa, kartografikoa eta LPPren datuak eta erreferentziak eguneratu gabe egotearen ondorioz gertatu direla. Halaber, aipatu da arazo horrek zorrotasun teknikoa eta juridikoa kenduko liokeela dokumentuari.

1. Como cuestiones previas se señalan una serie de errores y omisiones en los planos (por ejemplo, en el plano "03. Condicionantes superpuestos de la infraestructura verde") y se apunta a la falta de actualización de la base topográfica, la cartografía y los datos y referencias del PTP como un problema de origen que restaría al documento rigor técnico-jurídico.

Idazki honek LPParen edukia udal-arduradunei laburbiltzea eta azaltzea du helburu. Txostenaren edukia egituratzeko, deskribapen-txosten tekniko batean oinarritu gara, eta tamaina desberdinetako ataletan xehakatu dugu. Testuan zehar iruzkinak, oharra, iradokizunak eta udal-arkitektoaren proposamenak tartekatuta dira. Amaieran, Lamiakoko eremuari buruzko informazio-txosten bat erantsi da.

El escrito se estructura sobre la base de un informe técnico descriptivo, desglosado en apartados temáticos de desigual tamaño, que pretende resumir y explicar el contenido del PTP a los responsables municipales. A lo largo del texto se intercalan comentarios, observaciones, sugerencias y propuestas del arquitecto municipal. Se incluye un Anexo final informativo sobre el área de Lamiako.

Laburpen honetan dokumentuaren deskribapenari egindako objekzioak eta ekarpenak baino ez dira jaso, eta idazkiaren hurrenkeraren arabera zerrendatu dira. Hala ere, ulergarriagoa izan dadin, txosteneko epigrafearen erreferentzia jaso da horien aurretik (B.2, B.3 etab.)

En este resumen solo se recogen las objeciones y aportaciones añadidas a la descripción del documento, numeradas correlativamente por orden de aparición en el escrito, aunque para mayor claridad vienen precedidas por la referencia al epígrafe del informe (B.2, B.3, etc.)

B.3. Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

B.3. Medio físico e infraestructura verde

2. **Hezeguneei** dagokienez (II eta III taldeak), non Lamiakoko dartsena jaso den, BMLPpean

2. Respecto a los **humedales** (Grupo II y Grupo III), entre las que se incluye la Dársena de





adierazi da “LPP honen ondorioak EAEko Hezeguneen LPSk arautzen dituela”. Iradokizunaren arabera, komeni da argitzea, LPParen 17. artikularen arabera, udal-plangintzak zehaztuko duela III. taldeko zein hezegunek dituzten ingurumen-, natura- eta paisaia-balioak, eta azterketa xehatuen bidez ezarri ahal izango duela eremu horietarako babesa eta horien inguruneak erabilera-araubidea. Horretarako, LPPean zehaztutako antolamendu-kategoriak esleitu ditu. LPParen antolamendu-eremuak II. taldeko hezeguneei egiten die erreferentzia, eta horiek mugatzeko hainbat irizpide jarraitu behar dira, kostako edo barrualdeko hezegunek ote diren kontuan hartuta.

Lamiako, el PTPBM señala que están “regulados a los efectos de este PTP por el PTS de Zonas Húmedas la CAPV”. La sugerencia ve conveniente aclarar que, según el artículo 17 del PTS, será el planeamiento municipal el que determine qué zonas húmedas del grupo III poseen valores ambientales, naturalísticos y paisajísticos y podrá establecer mediante estudios pormenorizados la protección para dichas zonas y el régimen de usos de su entorno, asignando para ello las categorías de ordenación definidas en el PTS; el ámbito de ordenación del PTS se refiere a las zonas húmedas del Grupo II, y su delimitación responde a criterios diferentes según se trate de humedales costeros o interiores.

3. Azpiegitura berdearen **baldintzatzaile gainjarrirei** dagokienez, adierazi da 3.1 planoan (“Azpiegitura berde metropolitarra: zerbitzu ekosistemikoak dituzten elementuak, batez ere erregulazio- eta euste-zerbitzuak dituztenak”) “Batasunaren intereseko beste habitat batzuk” gisa identifikatzen direla bai lurzoru urbanizatu eta eraikiaren azalerak, bai antolamendu xehatua duten lurzoru urbanizagarriak.

3. Sobre **condicionantes superpuestos** de la infraestructura verde, se indica que en el plano 3.1 “Infraestructura verde metropolitana: elementos con servicios ecosistémicos mayormente de regulación y sostenimiento” se identifican como “Otros hábitats de interés comunitario” superficies de suelo urbanizado y edificado, así como suelos urbanizables con ordenación pormenorizada.

4. 5. planoan (“Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriak. Akuiferoen kalteberatasuna. Arrisku geologikoak. Baso-suteak”) “Eremu higagarriak eta arrisku geologikoak dituztenak” gisa identifikatzen dira lurzoru urbanizatu eta eraikiaren azalerak, hala nola UPV-EHUren campusa.

4. En el plano nº5 “Condicionantes Superpuestos de riesgos naturales y cambio climático. Vulnerabilidad de acuíferos. Riesgos geológicos. Incendios forestales” se identifican como “Áreas erosionables y con riesgos geológicos” superficies de suelo urbanizadas y edificadas, como el campus de UPV-EHU.

5. 51. artikuluan (“Lurzoru urbanizaezineko beste jarduera batzuk”) jasotakoaren arabera, “Ekipamendu Publikoko Sistema Orokor gisa kalifikatutako lurzoruetan” soilik garatu ahal izango dira aire zabaleko kirol-instalazioak, eta “eraikuntza onargarriak soilik kirol kalifikatuaren garapenari lotutakoak izango dira, instalazioak zorrotz mantentzeko beharrezkoak direnak kanpoan utzita”.

5. El artículo 51 “Otras actividades en suelo no urbanizable” señala que sólo se podrán desarrollar instalaciones deportivas al aire libre “sobre suelos calificados como Sistema General de Equipamiento Público” y que “las construcciones admisibles serán sólo las vinculadas al desarrollo del deporte calificado, excluyéndose las necesarias para el estricto mantenimiento de las instalaciones”.

B.4. Landa-habitata

B.4. Hábitat rural

6. 8. planoan, “Landa-habitata”, besteak beste nekazaritza eta abeltzaintzako loturak identifikatzen dira. Horiek horrela, Berango eta Santsoena ingurunea lotzen dituen lurzoru-zerrenda bat identifikatu da, Babes

6. En el plano nº8 “Hábitat rural” se identifican, entre otros, los conectores agropecuarios. Así, se identifica una franja de suelo que conecta Berango con el entorno de Santsoena, sobre suelos incluidos en la categoría de Especial





Bereziko kategorian (Bolueko hezegunea) sartutako lurzoruetan, non nekazaritza eta abeltzaintza erabiltzea debekatuta dagoen I. eranskineko matrizearen arabera. Hori, ordea, ez dator bat 53. artikulua lokailu horietarako ezartzen duen helburuarekin: *“Eremu horiek nekazaritza eta abeltzaintzarekin duten lotura mantentzea”*.

Gainera, korridore horrek nekazaritza eta abeltzaintzakoak ez diren lurzoruak zeharkatzen ditu: urbanizagarriak, azpiegiturak, zabortege bat, basoak, etab. Bestalde, korridore ekologikoek bailara beraren barruan nekazaritzarako erabil daitezkeen lurzoruak elkartu beharko lituzketela ulertzen da, horien muga fisikoetatik haratago konektatu beharrik gabe. Kasu honetan, Bolue-Unbe loturak fisikoki banatzen du korridorea, eta ez da gainditu beharreko oztopotzat jo.

B.5. Hiriko habitata

7. Artea merkataritza-gunetik EHUren sailhesbidera doan tartean **Hiri Hazkundeko Perimetroa** (HAP) aldatzea proposatu da, hartara, tarte horren mugen baitan sar dadin Ama Dominikarren antzinako komentuaren inguruan aurreikusitako lurzoru urbanizagarri berria (HAPO aldatzeko espediente, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena eta behin-behineko onarpena dituen), bai eta Bolue-EHU bide-sistema orokorraren erreserba ere.

8. **ER-17 Lamiakoko ibarra Gune Garrantzitsuari** dagokionez, hainbat erabilera dituen, LPPan kontuan hartu beharko liratekeen hainbat zehaztapen egiten dira:

- ER-17ak mugatutako azaleraren barruan ez dago gaur egun hezegunerik. Antzina bertan zegoen hezegunearen azalera (gaur egun Itsasadarreko errepidea dena) 1860 inguruan lehortu zen.
- 2018an, Leioako Udalak Paisaiaren Ekintza Plan bat idatzi zuen, ER-17k dituenaren beste muga batzuekin, eta Interneten kontsulta daiteke. Plan horretan, Gobelako ibilgua desbideratzea proposatzen da, berreskuratutako padura-espaziora urak ekar ditzan.
- Kokaleku horretan proiektu bat dago sistema unitarioko gainezkatzeak tratatzeko estazio

Protección (humedal de Bolue), donde el uso agropecuario queda prohibido según la Matriz del Anexo I, lo que contradice el objetivo que establece el artículo 53 para estos conectores: *“mantener la vinculación agropecuaria de estas zonas”*.

Además, este corredor atraviesa suelos no agropecuarios: urbanizables, infraestructuras, un vertedero, bosques, etc. Por otra parte, se entiende que los corredores ecológicos deberían unir suelos de uso potencial agrícola dentro de un mismo valle, sin necesidad de conectar más allá de los límites físicos de estos. En este caso, el cordal Bolue-Unbe divide físicamente el corredor, sin que se haya considerado como un obstáculo a superar.

B.5. Hábitat urbano

7. Se propone modificar el **perímetro de crecimiento urbano** (PCU) en el tramo que va desde el Centro Comercial Artea hasta la variante de la UPV, para incluir dentro de sus límites el nuevo suelo urbanizable previsto en el entorno del antiguo convento de las RRMM Dominicas (expediente de modificación del PGOU que cuenta con aprobación provisional e informe favorable de la COTPV), así como la reserva del sistema general viario Bolue-UPV.

8. En relación con el **Espacio Relevante, ER- 17 Vega de Lamiako**, que alberga usos diversos, se hacen varias precisiones que deberían tenerse en cuenta en el PTP:

- Dentro de la superficie delimitada por el ER-17 no existe hoy ningún humedal. La superficie del antiguo humedal (hoy carretera de la Ría) se desecó hacia 1860.
- En 2018 el Ayuntamiento de Leioa redactó un Plan de Acción del Paisaje con límites diferentes a los del ER-17, que puede consultarse en internet, donde se propone desviar el cauce del Gobel para que aporte sus aguas al espacio marismal recuperado.
- Hay un proyecto en ese emplazamiento para construir una Estación de Tratamiento de





bat eraikitzeke, eta horren ingurumen-ebaluazioa izapidetze-bidean da. Horiek horrela, 17. planotik (saneamendu-sarea) HUAren kokapena kendu behar da, eta horren ordez Sistema Unitarioaren Gainezkatzeen Araztegia jarri.

- Ingurumen-helburuak lortzen laguntzeko eta Lamiako auzoaren hirigintza-berroneratzea osatzeko (Birgaitze Integratuko Eremua), Udalak HAPOn aldaketa bat izapidetzeari ekin dio, zeina ER-17an identifikatutako lurzoruetatik haratago doan eta bizitegi-garapen berri bat aurreikusten duen Lamiakoko Ibarra izeneko eremuaren eta Langileria kalearen artean.

9. “Txorierriko Berrikuntza Ardatza” KEAn, erabilera mistoko (industrial eta tertziarioa) lurzoru urbanizagarriko bi poltsa sartzea proposatzen da, UPV/EHUko Avanzada errepidearen eta Leioako Campusaren arteko espazioan daudenak (Saltuena eta Santi Mami sektoreak), campusa eta Mendibile auzoa lotzen dituen errepidea muga gisa hartuta.

10. Ez da uste Lurralde Plan Partzialean Leioarako proposatutako **gehieneko bizitegi-ahalmena** (CRmax: 1.540 etxebizitza berri) proportzionatua denik, ez eta behar bezala justifikatuta dagoenik ere, lurralde-eredu zuzentzailearen koefiziente negatiboa aplikatu baita (LEZ = -700).

Alegatu denez, Leioak % 17ko biztanleria-hazkundera izan du azken urteotan, eta bizitegi-ahalmena % 45 murriztu du; Uribe Kostako beste udalerri batzuek, aldiz, % 50eko hazkundera izan dute aldi berean, eta bertako LEZren balioa 0 da.

Lurralde Plan Partzialak ezarritako gehiengo bizitegi-ahalmen hori ez da nahikoa indarrean dagoen HAPOn garatzeko dauden sektoreetan aurreikusitako etxebizitzakopurua hartzeko. Etxebizitza horiek berriro dentsifikatu egin behar dira Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna betetzeko, 1.792 etxebizitzako kopurura iritsi arte, hau da, adierazitako gehiengo 1.540tik gora.

Lamiakoko ER-17 Gune Garrantzitsuan (750 eta 1.050 artean), gainera, hiri-lurzoru industrial zaharkituan aurreikusitako etxebizitza berriak gehitu beharko lirateke, aurreikusitako kargak konpentsatzeko:

Desbordamientos del Sistema Unitario, cuya evaluación ambiental está en tramitación. Así pues, hay eliminar del plano 17 (Red de saneamiento) la ubicación de la EDAR y sustituirla por la alternativa Estación de Tratamiento de Desbordamientos del Sistema Unitario.

- Para facilitar la consecución de los objetivos ambientales y completar la regeneración urbanística del barrio de Lamiako (Área de Rehabilitación Integrada) el Ayuntamiento ha iniciado la tramitación de una modificación del PGOU que abarca suelos más allá de los identificados en la ER-17, y contempla un nuevo desarrollo residencial entre la superficie identificada como Vega de Lamiako y la calle Langileria.

9. En el ACE “Eje de Innovación del Txorierri”, se propone la incorporación de dos bolsas de suelo urbanizable de uso mixto (industrial y terciario) existentes en el espacio situado entre la carretera de la Avanzada y el Campus de Leioa de la UPV/EHU (Sectores Saltuena y Santi Mami), tomando como límite la carretera que une el Campus con el barrio de Mendibile.

10. No se considera proporcionada, ni bien justificada, la **capacidad residencial máxima** propuesta por el PTP para Leioa (CRmáx: 1.540 viviendas nuevas), por la aplicación de un coeficiente corrector de modelo territorial negativo (CMT=-700).

Se alega que Leioa, con un incremento de población del 17% en los últimos años, ve su capacidad residencial reducida en un 45%, cuando otros municipios de Uribe Kosta, con un crecimiento del 50% en el mismo período, tienen un valor de CMT igual a 0.

Se entiende que esta capacidad residencial máxima establecida por el PTP no es suficiente para acoger el número de viviendas previsto en los sectores pendientes de desarrollo del PGOU vigente, que deben ser redensificados para cumplir la edificabilidad mínima establecida en la Ley de Suelo 2/2006, hasta alcanzar una cifra de 1.792 viviendas, superior al máximo señalado de 1.540.

Además, habría que añadir las nuevas viviendas previstas en suelo urbano industrial obsoleto en el Espacio Relevante ER-17 de Lamiako (entre 750 y 1.050) para compensar las cargas previstas: soterramiento del metro,





metroaren lurperatzea, Gobelako ibilgu berria, hezegunearen ingurumen-berreskurapena.

nuevo cauce del Gobela, recuperación ambiental del humedal...

11. **Jarduera ekonomikoetarako** lurzoruaren kuantifikazioari dagokionez, datuen fidagarritasunari buruzko zalantzak eta eguneratzerik eza kritikatu dira, baita lurzoru urbanizaezinetako jarduera ekonomikoetarako ekimen publikoko hiru-garapen berriren proposamena ere. Uste da ez dela koherentea administrazio publiko batek dagoeneko artificializatuta dauden lurzoruak berroneratzea edo berritzea lehenetsiz landa-lurzorua zaintzeko beharra ezartzea eta, aldi berean, guztiz kontrakoa egitea proposatzea jarduera publikoak tartean daudenean, alde batera utzita administrazio orok bere eskumenak gauzatzean izan behar duen balio eredugarria.

Horrenbestez, ulertezintzat jotzen da Zamudioko Parke Teknologikoaren harrera-gaitasuna edo Abantoko eraikuntza-jarduera handitzen jarraitzea, Leioako Parke Zientifikoaren edukieraren bosten bat ere osatu ez denean; izan ere, azken hori lehen mailako azpiegitura bat da, eta haren irisgarritasuna hobetu beharra dago, merezi duen garrantzia eman dakion, haren balioa nabarmentzeko eta enpresak eta erakundeak erakartzeko duen gaitasuna nabarmentzeko.

11. En cuanto a la cuantificación de suelo para **actividades económicas**, se critica la falta de actualización y las dudas sobre la fiabilidad de los datos, así como la propuesta de tres nuevos desarrollos de iniciativa pública para actividades económicas en suelos no urbanizables. Se considera que no es coherente que la administración que impone la necesidad de preservar el suelo rural priorizando la regeneración o renovación de suelos ya artificializados, proponga, al mismo tiempo, hacer todo lo contrario cuando se trata de actuaciones públicas, obviando el valor ejemplarizante que se le presupone a toda administración en el desempeño de sus competencias.

Así, se estima incomprensible que se siga ampliando la capacidad de acogida del Parque Tecnológico de Zamudio o la actividad constructiva en Abanto cuando no se ha completado ni una quinta parte de la capacidad del Parque Científico de Leioa, una infraestructura de primer nivel cuya accesibilidad debe mejorarse para darle la relevancia que merece de cara a su puesta en valor y capacidad de atracción de empresas e instituciones.

B.6. Mugikortasuna eta garraioa

12. **Mugikortasunari eta garraio-azpiegiturei** dagokionez, zera ohartarazten da:

- Oker edo akats bat antzeman da Larrakoetxe-Irlandesas bidegorriaren tartean.
- Leioako Unibertsitateko Campusa-Urbinaga ardatzean ez da tranbiaren aurreikuspenik egin, eta horrek indarreko Plan Orokorrean jasotako tren-erreserbaren aurreikuspena ezabatzea ekarriko luke, kotxe-tokiak barne.
- 13. planoan (Trenbide-garraioaren azpiegiturak) ere ez dira irudikatu TCPEren plataformaren trazadura posibleak, nahiz eta tranbiarako erabilera aukeren artean dagoen.

- Ez da jaso metro-sarerako trazadura alternatiboaren proposamenik, ez eta trenbide-sareek sortzen dituzten hirigintza-oztopoak pixkanaka ezabatzeko jarduerarik ere. Hala, faltan botatzen da 13. planoan

B.6. Movilidad y transporte

12. En relación con la **movilidad e infraestructuras del transporte** se advierte:

- Un ligero error o confusión en el tramo ciclable Larrakoetxe-Irlandesas.
- No aparece la previsión del tranvía en el eje Campus de la Universidad de Leioa-Urbinaga, lo que supondría eliminar la previsión de reserva ferroviaria recogida en el Plan General vigente, incluidas las cocheras. Tampoco se han representado en el plano 13. Infraestructuras del transporte ferroviario los posibles trazados de plataforma de TCPE, cuando el uso tranviario es una de sus posibilidades.
- No se recogen propuestas de trazado alternativo para la red de Metro, ni actuaciones encaminadas a eliminar progresivamente las barreras urbanísticas generadas por las redes ferroviarias. Así, se





(Trenbide-garraioaren azpiegiturak) sare horren ondorioz sortuko diren hirigintza-oztopoak identifikatzea, eta horiek lurperatze edo trazadura alternatibo baten bidez kentzea proposatzea.

- Jarduketa horien artean, Lamiako auzoan metroa lurperatzea (txosten honen I. eranskinean ER-17rako deskribatutako eragiketarekin bat etorritik) edo azpiegitura hori Leioako erdigunera eta iparraldeko auzoetara hurbilduko duen metroaren 1. linearen saihezbidea eraikitzea jaso beharko lirateke, modu horretan, Avanzadatik igarotzen den trafikoaren zati batek garraibide jasangarriago hori erabili dezan.
- Bolue-Unibertsitatea bide-zatia, Avanzadako errepidearen edukiera-arazoak konpontzeko planteatua, Bolue-Unibertsitatea-Kukularra lotura deitu beharko litzateke, azken lotura horiek egin ezean ez litzatekeelako inoiz Avanzadaren benetako alternatiba bihurtuko. Hain zuzen ere, hori izan beharko litzateke LPPren apustua, itsasadarraren eskuinaldeko trafikoa eta Leioako herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, bai eta EHUn campusaren ondoko Parke Zientifiko-Teknologikoari balioa emateko ere, erakargarriagoa eta irisgarriagoa izan dadin.
- Saihezbide horretako Bolue-Unibertsitatea tarterako proposatutako trazadura ez da egokiena; izan ere, Kurkudi mendiko hegalarren erdi-altuerako trazadurak beste haustura bat ekarriko luke Leioako auzoen eta horiek inguratzen dituen ingurune naturalaren arteko loturan.
- Ibai azpiko azpiegituraren baitan, tranbiak itsasadarra gurutzatzea planteatu beharko litzateke (TCPE gisa), eta bi ertzetan Metro Bilbaoren sarearekin (L1 eta L2) eta Renferen aldirikoekin (C1 eta C2) izan daitezkeen korrespondentziak aztertu beharko lirateke.

B.7. Uraren ziklo integralari buruz

13. Uraren ziklo integralaren azpiegiturei dagokienez, zera adierazi da:

- Sistema Unitarioaren Gainezkatzeeen Araztegia (ez HUA) eta Lamiako-Galindo-Kanpoko Abra isurbidea planoan identifikatu beharko lirateke.

echa de menos que en el plano 13. Infraestructuras del transporte ferroviario se identifiquen aquellos tramos en los que esta red constituye una barrera urbanística y debiera proponerse su eliminación mediante soterramiento o alternativa de trazado.

- Entre estas actuaciones deberían contemplarse el soterramiento del metro a lo largo del barrio de Lamiako (en coherencia con la operación descrita para la ER-17 en el Anexo I de este informe) o la construcción de una variante a la línea 1 del metro que acercase esta infraestructura al centro y barrios del norte de Leioa, posibilitando así el trasvase de parte del tráfico de paso por la Avanzada a ese modo de transporte más sostenible.
- El tramo viario Bolue-Universidad, planteado para resolver los problemas de capacidad de la carretera de la Avanzada, debería llamarse Bolue-Enlace de Universidad-Kukularra, puesto que sin estas últimas conexiones nunca se convertiría en una alternativa real a la Avanzada. Esta debería ser una apuesta del PTP para la mejora del tráfico en la margen derecha y la calidad de vida de los vecinos de Leioa, así como para poner en valor el Parque Científico-Tecnológico junto al campus de la UPV-EHU, haciéndolo más atractivo y accesible.
- El trazado propuesto para el tramo Bolue-Universidad de esa Variante no es el más adecuado, puesto que su trazado a media altura de la ladera del monte Kurkudi supondría otra fractura más en la conexión entre los barrios de Leioa y el entorno natural que los rodea.
- Debería plantearse la integración del cruce de la ría del tranvía (como TCPE) dentro de la infraestructura del Subfluvial y estudiarse las posibles correspondencias en ambas márgenes con la red de Metro Bilbao (L1 y L2) y con Cercanías de Renfe (C1 y C2).

B.7. Ciclo integral del agua

13. Sobre las infraestructuras del ciclo integral del agua, se señala que:

- Debería identificarse en el plano la Estación de Tratamiento de Desbordamientos del Sistema Unitario (no EDAR) y el emisario Lamiako-Galindo-Abra Exterior.





- Itsasadarren bi aldeen arteko konexio gehigarri bat ezartzeko aukera aztertu beharko litzateke, Lamiakoko ibai azpiko proiektuaren bidez, Lamiako-Galindo isurbidearen zati gisa, edo Lamiako ponpatze-estaziotik Galindoko HUAr doan egungo bidegurutzearen bypass posible gisa.

- Debería estudiarse la posibilidad de establecer una conexión adicional de la red de saneamiento entre las márgenes a través del subfluvial de Lamiako, tanto como parte del emisario Lamiako-Galindo, o como posible bypass al cruce actual desde la Estación de Bombeo de Lamiako a la EDAR de Galindo.

B.8. Kultura-ondarea

B.8. Patrimonio cultural

14. **Ondare historikoaren balioa** azpimarratzeari dagokionez, LPPan Lamiakoko Dartsenaren inguruan dauden hondarrak elementu nabarmen gisa sartzea proposatzen da: zortzi begien zubia, Udondo ibaiaren gaineko zubia, itsasadarreko errepidearen azpiko kai-muturra...

14. En lo que respecta a la puesta en valor del **patrimonio histórico**, se propone que el PTP incorpore como elementos destacados aquellos cuyos restos parecen estar en el entorno de la Dársena de Lamiako: puente de los ocho ojos, puente sobre el río Udondo, espigón bajo la carretera de la ría...

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

B.2 Aurretiazko gaiak

B.2 Cuestiones previas

1. Aurretiazko gaiei buruz:

Behin-behineko onarpenerako dokumentuaren hurrengo fasean, ahal den neurrian zuzenduko dira antzemandako akatsak eta omisioak.

Edonola ere, ohartarazi beharra dago emandako informazioaren zati handi bat kanpoko iturrietatik datorrela, eta iturri horien gainean ez dagoela kontrolik, izan ere akatsak izan ditzakete edo eguneratu gabe egon daitezke, eta LPPk ez dauka horiek unean-unean eta, are gutxiago, oro har berrikusteko aukerarik.

Hala, planeamenduari, aurreikuspen sektoriale, landareari, lurzoruen ezaugarriei, uholde-arriskuari, kutsadurari eta abarri buruzko datuak aldatu eta eguneratu egin daitezke, iturrien arduradunek hala egiten duten heinean.

Nolanahi ere, eguneratze faltak eta unean uneko akatsek ez diote dokumentuari baliorik edo zorroztasun tekniko-juridikorik kendu behar. Kontuan izan behar da LPPak gutxienez hamasei urteko plangintzaldia eta indarraldia aurreikusten dituela, eta denbora horretan zehar poliki-poliki aldatzen direla plangintzak, datu geografiko eta estatistiko batzuk eta lurraldea bera. Hala ere, plangintzaren oinarriak, datu orokorrek eta LPPren helburu

1. Sobre las cuestiones previas:

En la siguiente fase del documento para aprobación provisional se corregirán en lo posible los errores y omisiones detectados.

No obstante, hay que advertir que gran parte de la información aportada proviene de fuentes ajenas sobre las que no se tiene control, que pueden adolecer de errores o de falta de actualización, sin que el PTP tenga en su mano la posibilidad de revisarlos puntualmente y, menos aún, de forma generalizada.

Así, los datos sobre planeamiento, previsiones sectoriales, vegetación, características de los suelos, inundabilidad, contaminación, etc. pueden variar y actualizarse o no en la medida que lo realicen los responsables de las fuentes.

Sin embargo, ni la falta de actualización ni la existencia de errores puntuales tienen por qué restar validez o rigor técnico-jurídico al documento. Hay que tener en cuenta que un PTP contempla un periodo de planificación y vigencia de al menos 16 años y que a lo largo de ese tiempo se modifican lentamente los planeamientos, algunos datos geográficos y estadísticos y también el propio territorio. Sin embargo, las bases de la planificación, los





eta proposamenen berri ematen duten joerek, Diagnostikoan, Aurrerapenean eta ondorengo partaidetza publikoetan jasotakoek— ez dute hain aldaketa nabarmenik izaten.

Hori dela eta, lurralde-plangintza bat dator gaurkotasunarekin. LPPn jasotako informazioa indarreko plangintzarekin eta udal-mailako errealitate fisikoarekin alderatzerakoan egon daitezkeen akatsek ez dute, beraz, arazo izan behar. Kasu horietan, baldintzatzaileen interpretazioa malgua izan daiteke, baldin eta arrazoitua bada eta errorea dokumentatzen bada.

B.3. Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

2. II. eta III. taldeetako hezeguneen tratamendu desberdinari buruzko iradokizunean eskatutako argibidea LPPren dokumentuan eranstearen egokitasuna baloratuko da, bai eta horiei dagozkien udal-eskumenak jasotzea ere. Alde batetik, ez da behar-beharrezkotzat jotzen, LPPak Hezeguneen erregulazioari egiten dion erreferentzia orokorrak 7. eta 17. artikuluetan jasotako zehaztapen bereziak jasotzen baititu. Bestetik, ulertu behar da, argibideak ematea komenigarria izan arren, LPPak ezin dituela aipatutako araudi guztien artikulua garatu.

3. Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, 3.1. planoan jasotakoak, lurzoru urbanizatu eta eraikiekin eta antolamendu xehatua duten lurzoru urbanizagarriekin bat datozenak:

o Gogoratu LPParen informazioa indarreko plangintzarekin alderatzean egon daitezkeen akatsei buruz 1. puntuan azalduakoa.

o Adierazi beharra dago, behin-behineko onarpenerako dokumentuaren hurrengo fasean berrikusi egingo dela LPPa antolatzeko arauen 34. artikulua edukia, “Batasunaren intereseko beste habitat batzuei” buruzkoa, dagoeneko sailkatuta dauden lurzoruetan egon daitezkeen kontraesanak konpontzeko.

4. Bosgarren planoko baldintzatzaileei dagokienez, “Eremu higagarriak eta arrisku geologikoak dituzten eremu” gisa

datos generales y las tendencias que informan los objetivos y propuestas del PTP, incorporados desde el Diagnóstico, el Avance y las sucesivas participaciones públicas, no experimentan una alteración tan significativa.

Por ello la planificación territorial no está reñida con la actualidad. Los posibles errores al contrastar la información del PTP con el planeamiento vigente y la realidad física a escala municipal no deben constituir un problema. En esos casos, la interpretación de los condicionantes puede ser flexible siempre que sea motivada y se documente el error.

B.3. Medio físico e infraestructura verde

2. Se valorará la pertinencia de añadir al documento del PTP la aclaración solicitada en la sugerencia sobre el distinto tratamiento de los humedales de los grupos II y III, y las competencias municipales en relación con los últimos. Por un lado, no se considera estrictamente necesario, ya que la referencia general a la regulación de las Zonas Húmedas por el PTS incluye las determinaciones particulares contenidas en los artículos 7 y 17. Por otro, debe entenderse que, aunque la aclaración resulte conveniente, el PTP no puede entrar a desarrollar el articulado de todas las normativas a las que hace referencia.

3. Sobre los condicionantes superpuestos de la infraestructura verde, recogidos en el plano nº 3.1 que coinciden con suelos urbanizados y edificados, así como suelos urbanizables con ordenación pormenorizada hay que:

o Recordar lo expuesto en el punto 1 sobre los posibles errores al contrastar la información del PTP con el planeamiento vigente

o Señalar que en la siguiente fase del documento para aprobación provisional se revisará el contenido del artículo 34 de las Normas de Ordenación del PTP sobre “Otros hábitats de interés comunitario”, para resolver las posibles contradicciones en suelos ya clasificados.

4. En relación con los condicionantes del plano 5 identificados como “Áreas erosionables y con riesgos geológicos” que la sugerencia señala





identifikatuak, zeinak iradokizunaren arabera lurzoru urbanizatu eta eraikien azalerekin bat datozen, esan beharra dago baldintzatzaile horiek Geoeuskadiren Interneteko bisorearen kartografian agertzen diren datu publikoetan oinarritzen direla. Gai horri dagokionez, 1. puntuan azaldutakoa gogorarazi behar da, LPPren kontrolik ezari buruzkoa, kanpoko iturri publikoen datuei eta izan ditzakeen akatsei dagokionez.

5. 51. artikulua ("Lurzoru urbanizaezinezko beste jardura batzuk") testua zuzenduko da, izaera pribatuko kirol-instalazioak ere kontuan hartzeko, eta argitzeko aire zabaleko kirol-instalazioetan, ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatutako lurzoruetan, kirol kalifikatuaren garapenari lotutako eraikuntzak bakarrik onartuko direla, "instalazioak mantentzeko beharrezkoak direnak barne".

B.4. Landa-habitata

6. Zortzigarren planoan ("Landa-habitata") islatutako nekazaritzako eta abeltzaintzako konektorea kenduko da, desagokitzat jotzen baita, Babes Bereziko kategorian sartutako lurzoruetatik (Bolueko hezegunea) eta nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak ez diren beste lurzoru batzuetatik (urbanizagarriak, azpiegiturak, zabortegia, basoak, etab.) igarotzen delako eta Bolue-Unbe loturatik bereizita dagoelako.

B.5. Hiriko habitata

7. Artea merkataritza-gunetik EHuren saihebidera doan tartean **Hiri Hazkundeko Perimetroa** (HAP) aldatuko da, hartara, tarte horren mugen baitan sar dadin Ama Dominikarren antzinako komentuaren inguruan aurreikusitako lurzoru urbanizagarri berria, bai eta Bolue-EHU bide-sistema orokorraren erreserba ere.
8. **ER-17 Lamiakoko Ibarra Gune Garrantzitsuari** dagokionez, LPParen dokumentuan testuak zuzenduko dira (Arauen V. Eranskina eta beste batzuk), ER-17ak mugatutako azaleran gaur egun hezegunerik ez dagoela islatzeko; aitzitik, Leioako Udalak idatzitako Paisaiaren Ekintza

que coinciden con superficies de suelo urbanizadas y edificadas, se basan en datos públicos que aparecen en Internet en la cartografía del visor de Geoeuskadi. Sobre este tema hay que recordar lo ya expuesto en el punto 1 sobre la falta de control del PTP en relación con los datos de fuentes públicas ajenas y sus posibles errores.

5. Se corregirá el texto del artículo 51 "Otras actividades en suelo no urbanizable" para contemplar también instalaciones deportivas de carácter privado, y aclarar que en las instalaciones deportivas al aire libre sobre suelos calificados como Sistema General de Equipamiento solo sean admisibles las construcciones vinculadas al desarrollo del deporte calificado, "incluyendo las necesarias para el mantenimiento de las instalaciones".

B.4. Hábitat rural

6. Se eliminará el conector agropecuario reflejado en el plano nº8 "**Hábitat rural**" que conecta Berango con el entorno de Santsoena, ya que se considera inadecuado por discurrir sobre suelos incluidos en la categoría de Especial Protección (humedal de Bolue) y otros suelos no agropecuarios (urbanizables, infraestructuras, vertedero, bosques, etc.) y estar separado por el cordal Bolue-Unbe.

B.5. Hábitat urbano

7. Se modificará el **perímetro de crecimiento urbano** (PCU) en el tramo que va desde el Centro Comercial Artea hasta la variante de la UPV, para incluir dentro de sus límites el nuevo suelo urbanizable previsto en el entorno del antiguo convento de las RRMM Dominicas, así como la reserva del sistema general viario Bolue-UPV.
8. En relación con el **Espacio Relevante, ER-17 Vega de Lamiako**, el documento del PTP corregirá sus textos (Anexo V a las Normas y otros concurrentes) para reflejar que en la superficie delimitada por el ER-17 no existe hoy ningún humedal, sino que hay previsto un Plan de Acción del Paisaje redactado por el





Plana aurreikusi dela jasoko da, Gobelaren ibilgua desbideratzea proposatzen duena, berreskuratutako padura-espaziora urak ekar ditzan.

17. planoan (Saneamendu-sarea) zuzenduko da, non HUA bati erreferentzia egiten zaion, eta horren ordean, Sistema Unitarioaren Gainezkatzeeen Araztegia jarriko da.

LPPan, Lamiakoko ibarraren eta Langileria kalearen arteko mugakide diren industria-lurzoruetan HAPOn aldaketa bat egiteko udal-izapidearen berri emango da, bizitegi-garapen berri bat aurreikusten baitu.

9. LPPak **“Txorierriko Berrikuntza Ardatza” KEA**n sartuko ditu gaur egun jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dauden lurzoruak (Saltuena eta Santi Mami). Aitzitik, lurzoru urbanizaezineko bi poltsa berri barne hartzeko iradokizuna alde batera utziko da, Avanzadako errepidearen, UPV/EHUko Leioako Campusaren eta Mendibilerekin lotzen duen errepidearen artean kokatuak, erabilera mistoko lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatzeko (industrial eta terciarioa), ulertzen baitugu proposamen hori Leioako udal-plangintzaren berrikuspenaren esparruan jorratu beharko dela.

10. LPPan Leioarako proposatutako **gehieneko bizitegi-ahalmena** 1.849 etxebizitzakoa da, ez 1.540koa, iradokizunean oker baieztatu denaren kontra.

Leioan lurralde-eredu zuzentzailearen koefiziente negatiboa (LEZ= -700) aplikatzea luze eta zabal justifikatuta dago Memorian. Uribe Kostako beste udalerri batzuek, hala nola Urdulizek eta Berangok, ez dute LEZ negatiborik, izan ere, udalerri horiek beren indarreko plangintzan aurreikusita dute LEZrik gabeko gehieneko bizitegi-ahalmena baino etxebizitza-kopuru handiagoa.

Ondorioz, LPPan esleitutako gehieneko bizitegi-ahalmena Leioan planteatutako hazkunderako nahikoa izan behar dela ulertzen da; izan ere, bizitegi-kuantifikazioari buruzko LAGen 13. artikulua birdentsifikazio- eta berrikuntza-eragiketetatik eratorritako gehikuntzen aldeko tratamendua aurreikusten du, hala nola Ondiz, Ubedene, Laubide eta Lamiakon aurreikusitakoak.

Ayuntamiento de Leioa, que propone desviar el cauce del Gobelá aportar sus aguas al espacio marismal recuperado.

Se corregirá en el plano 17 (Red de saneamiento) la referencia a una EDAR y se sustituirá por la alternativa Estación de Tratamiento de Desbordamientos del Sistema Unitario.

Se hará mención en el PTP de la tramitación municipal de una modificación del PGOU en los suelos industriales colindantes entre la Vega de Lamiako y la calle Langileria, que contempla un nuevo desarrollo residencial.

9. El PTP incluirá en la representación del **ACE “Eje de Innovación del Txorierri”** los suelos actualmente clasificados como urbanizables de actividades económicas (Saltuena y Santi Mami). En cambio, se obviará la sugerencia de incorporar dos nuevas bolsas de suelo no urbanizable, situadas entre la carretera de la Avanzada, el Campus de Leioa de la UPV/EHU y la carretera que lo une con Mendibile, para su reclasificación como urbanizable de uso mixto (industrial y terciario), al entenderse que esta propuesta deberá madurarse en el marco de la revisión del planeamiento municipal de Leioa.

10. La **capacidad residencial máxima** propuesta por el PTP para Leioa es de 1.849 viviendas, no de 1.540 como se afirma erróneamente en la sugerencia.

La aplicación de un coeficiente corrector de modelo territorial negativo (CMT=-700) en Leioa aparece justificada extensamente en la Memoria. La razón de que otros municipios de Uribe-Kosta, como Urduliz y Berango, no presenten un CMT negativo es porque estos ya tienen previsto en su planeamiento vigente un número de viviendas superior a la capacidad residencial máxima sin CMT.

En conclusión, se entiende que la capacidad residencial máxima asignada en el PTP debe ser suficiente para el crecimiento planteado en Leioa, ya que, además, el artículo 13 de las DOT sobre cuantificación residencial prevé un tratamiento favorable de los incrementos derivados de operaciones de redensificación y renovación, como las contempladas en Ondiz, Ubedene, Laubide y Lamiako.





11. **Jarduera ekonomikoei** buruzko datuen eguneratze eta fidagarritasun faltari buruz egindako kritikari dagokionez, zeinaren bidez adierazi baita Udalplaneko iturrien eta BFAren 2018ko Informazio Geografikoko Sistemaren artean desberdintasunak daudela, lehenengo puntuko kontuari erantzuteko adierazitako argudioez gain, iragartzen dizuegu BFAk Bizkaiko Jarduera Ekonomikoen Lurzoruen Inbentarioa egin duela 2020ko datuekin eta web orrian dagoela eskuragarri.

Ildo horretatik, LPP hasieran onesteko dokumentuaren hurrengo fasean jarduera ekonomikoko lurzoruei buruzko datuak eguneratuko dira, eta inbentario berriaren eta Udalplan 2020ren datuak alderatuko dira.

Lurzoru urbanizaezinetan ekimen publikoko jarduera ekonomikoak erreserbatzeko iradokizunari egindako kritikari dagokionez, uste baita landa-lurzorua babesteko behararekin koherentziarik ez dutela, ohartarazi beharra dago LPPren Berrikuspenak jarduera ekonomikoetarako lurzoruak ere aurreikusi behar dituela, Lurralde Antolamenduari buruzko 4/90 Legearen 12. artikuluan, LAGen 12. artikuluan eta jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko LPSaren 9.2 eta 12. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Lurralde mugatu baten beharizan estrategikoari buruz ari gara. Ildo horretatik, Agarre, Ortuella eta Montealegreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erreserbek administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak, BFA) dagoeneko jabari publikoaren zati diren lurzoru-erreserbak industria sustatzeko eta garatzeko egindako politika sektorialen eskaera zehatzei erantzuten diete. Ortuella eta Montealegre dagoeneko bazeuden indarreko LPPan jasota. Agarre Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren aldeko txostena jaso du, Parke Teknologikoak eskatuta, bai eta BFAko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiarena ere, nekazaritzarako balio handia duten lurzoruei dagokienez.

Leioako Parke Zientifikoaren irisgarritasuna hobetzeko eta haren garapena bultzatzeko beharra aipatuko da LPPn, zeinak lehentasuna izango baitu, azpiegitura estrategiko horri balioa emateko eta enpresen eta erakundeen erakapen-gaitasuna handitzeko.

11. En relación con la crítica sobre la falta de actualización y la fiabilidad de los datos sobre **actividades económicas**, por la discrepancia entre las fuentes de Udalplan y del GIS de la DFB de 2018, más allá de los argumentos señalados en respuesta a la cuestión previa del primer punto, se anuncia que la DFB ha elaborado un Inventario de los Suelos de Actividades Económicas de Bizkaia con datos de 2020, ya disponible en la página web de la DFB.

En este sentido, en la próxima fase del documento para aprobación inicial del PTP se actualizarán los datos correspondientes a los suelos de actividad económica con una comparación entre los datos del nuevo Inventario y Udalplan 2020.

Sobre la crítica de la sugerencia a las reservas de actividades económicas en suelos no urbanizables de iniciativa pública, por considerarlas incoherentes con la necesidad de preservar el suelo rural, hay que observar que la Revisión del PTP también debe prever suelos para actividades económicas, según lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 4/90 de Ordenación del Territorio, el artículo 12 de las DOT y los artículos 9.2 y 12 del PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas. Se trata de una necesidad estratégica en un territorio limitado. En este sentido, las reservas de suelo para actividades económicas de Agarre, Ortuella y Montealegre responden a las demandas concretas de políticas sectoriales de las distintas administraciones públicas (GV, DFB) para la promoción y desarrollo industrial en suelos que ya son en parte de dominio público. Ortuella y Montealegre ya estaban recogidas en el PTP vigente. Agarre cuenta con informe favorable de la Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana del GV, a petición del Parque Tecnológico, y de la Dirección General de Agricultura de la DFB sobre los suelos de alto valor agrológico.

Se hará mención en el PTP de la necesidad de mejorar la accesibilidad y de impulsar el desarrollo del Parque Científico de Leioa, con carácter prioritario, para poner en valor esta infraestructura estratégica y aumentar su capacidad de atracción de empresas e instituciones.





B.6. Mugikortasuna eta garraioa

12. Mugikortasunari eta garraio-azpiegiturei dagokienez, eskertzen ditugu azpiegitura-sareen irudikapen grafikoari buruzko iradokizunean egindako ekarpenak eta zehaztapenak. Ekarpene horiek LPPan jasoko ditugu, eskalaren eta xehetasun-mailaren arabera, dokumentuan zehaztutako lurralde-ereduari egokitzen zaizkion heinean.

- Halaber, Lamiakoko tartea barne hartuko da trenbide-sareak eragindako hirigintza-oztopoak kentzea proposatzen den puntuen zerrendan.
- Lamiakoko ibai azpiko proiektua gauzatzeko eskumena duen administrazioak balizko korrespondentziak aztertzeko iradokizuna jasoko da, aurreikusita dagoen Metro eta Renfe Aldirien lineen artean, itsasadarraren bi aldeetan.
- Era berean, LPPn jasoko da Bolue-Unibertsitatea-Kukularra lotura bateratzeko proposamena, Avanzadako ardatzaren alternatiba gisa. Bide horren trazadura zehatza plangintzaren ondorengo faseetan aztertu beharko da.

B.7. Uraren ziklo integralari buruz

13. Uraren ziklo integralaren azpiegiturei dagokienez:

- 17. planoan Sistema Unitarioaren Gainezkatzeen Araztegiari egindako erreferentzia zuzenduko da (ez HUA).
- Eskertzen da Lamiako-Galindo-Kanpoko Abra isurbideari buruz egindako iradokizuna.
- LPPari gehituko zaio, iradokizun gisa, Lamiakoko ibai-azpiko proiektuan, trafikoaz eta garraioaz gain, bi aldeen arteko hornidura-eta saneamendu-sareen konexio gehigarriak sartzeko aukera aztertzea, hala nola, Lamiako-Galindo isurbidearen zati bat, edo bypass bat Lamiakoko ponpaketa-estaziotik Galindoko HUArako egungo bidegurutzean.

B.6. Movilidad y transporte

12. Respecto a la movilidad y las infraestructuras de transporte, se agradecen las aportaciones y precisiones de la sugerencia en relación con la representación gráfica de las distintas redes de infraestructuras, que se incorporarán al PTP en la medida en que, por su escala y grado de pormenorización, se adecúen al modelo territorial definido en el documento.

- El PTP incorporará el tramo de Lamiako a la relación de los puntos donde se propone la eliminación de las barreras urbanísticas causadas por la red ferroviaria.
- Se recogerá la sugerencia de que la administración competente del proyecto del Subfluvial de Lamiako estudie posibles correspondencias con las líneas de Metro y de Renfe Cercanías en ambas márgenes.
- Por su interés, se incorporará al PTP la propuesta de visión conjunta del viario Bolue-Enlace de Universidad-Kukularra como una alternativa al eje de La Avanzada. Su trazado concreto deberá ser objeto de análisis en las fases posteriores de su planificación.

B.7. Ciclo integral del agua

13. Sobre las infraestructuras del ciclo integral del agua:

- Se corregirá en el plano 17 la referencia a la Estación de Tratamiento de Desbordamientos del Sistema Unitario (no EDAR).
- Se agradece la aportación de la sugerencia respecto al emisario Lamiako-Galindo-Abra Exterior.
- Se incorporará al PTP como sugerencia que en el proyecto del subfluvial de Lamiako, además del tráfico y el transporte, se estudie la posibilidad de incluir conexiones adicionales de las redes de abastecimiento y saneamiento entre ambas márgenes, como, por ejemplo, parte del emisario Lamiako-Galindo, o un posible bypass al cruce actual desde la Estación de Bombeo de Lamiako a la EDAR de Galindo.





B.8. Kultura-ondarea

14. Ondare historikoaren balioa nabarmentzeari dagokionez, LPPn jasoko dira Lamiakoko Dartsenaren inguruan dauden hondarrak: zortzi begien zubia, Udondo ibaiaren gaineko zubia, itsasadarreko errepidearen azpiko kai-muturra...

B.8. Patrimonio cultural

14. Con relación a la puesta en valor del **patrimonio histórico**, el PTP hará mención de los restos que parecen encontrarse en el entorno de la Dársena de Lamiako: puente de los ocho ojos, puente sobre el río Udondo, espigón bajo la carretera de la ría...

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

